

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEZAKO UDALA

Behin betiko onestea 2021eko aurrekontu orokorra

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez 2021eko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da, eta hau da laburpena, kapituluka:

GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Langile gastuak	100.000,00
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	117.750,00
III. Finantza gastuak	3.500,00
IV. Transferentzia arruntak	44.850,00
VI. Inbertsio errealak	81.036,61
IX. Finantza pasiboak	9.000,00
Gastuen egoera guztira	356.136,61

DIRU SARREREN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Zuzeneko zergak	107.661,01
II. Zeharkako zergak	20.055,94
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	44.950,00
IV. Transferentzia arruntak	136.470,37
V. Ondare bidezko diru sarrerak	18.970,00
VII. Kapital transferentziak	28.029,29
Diru sarrerak, guztira	356.136,61

Era berean, bat etorritik toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 18. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 6. artikuluan ezarritakoarekin, erakunde honen 2021 lanpostu zerrenda argitaratzen da.

Lanpostuaren izena	Idazkari-kontuhartzailea
Administrazio egoera	Bitartekoa
Eskala	Gaikuntza nazionaleko funtzionarioa
Azpieskala	Idazkari-kontuhartzaileak
Taldea	A1
Maila	22
Hizkuntza eskakizuna	4
Derrigortasun data	2020/09/30
Destinoa	Leza-Navaridas elkartea
Dedikazioa	ehuneko 50
Betetzeko sistema	Lehiaketa
Berariazko osagarria	10.624,04

Lanpostuaren izena	Administrari laguntzailea
Administrazio egoera	aktiboan
Lanbide kategoria	laguntzaileak
Taldea	C2
Maila	11
Hizkuntza eskakizuna	2
Derrigortasun data	2016ko maiatzaren 1a
Destinoa	Lezako Udala.
Ordainsariak	21.690,48

Lanpostuaren izena	Zerbitzu askotarako behargina-aguazila
Administrazio egoera	aktiboan
Lanbide kategoria	Menpekoak
Taldea	E
Maila	8
Hizkuntza eskakizuna	1
Derrigortasun data	Datarik gabe
Destinoa	Lezako Udala.
Ordainsariak	26.647,32

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hauek dira udalbatzak onartutako aurrekontuari buruzko udal araudian jasotzen diren kalte-ordainak eta bileretara joateagatiko zenbatekoak:

– Osoko bilkuretara joateagatik, zinegotziek 35,00 euroko dieta jasoko dute kalte-ordain gisa, bilkura bakoitzeko.

Udalaren aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Leza, 2021eko otsailaren 3a

Alkatea

JOSE ANTONIO SUSO PÉREZ DE ARENAZA